

Iturria: Sarasola

Izaskun Aldezabal & María Jesús Aranzabe

UPV/EHU

Laburpena

Artikulu honetan, gure ikertzaile- eta irakasle-ibilbidez jardun gara, ezinbestean Sarasolaren lanetara hurbildu gaituen hiztegitza alorra ardatz hartuta. Hizpide izan ditugu, batetik, gure jardunean behar izan ditugun baliabide linguistikoak eta metodologia, eta bestetik, eta batez ere, horiek lantzean izandako bizipenak, horietako askok Sarasolaren beraren esperientziarekin antzekotasuna dutenak. Zehazki, euskararen tratamendu automatikoaren garapenean eta euskara berezituaren didaktikan murgildu gara.

0. Sarrera

Ezin esan dezakegu gure ikasketa-garaietan harreman handiegirik izan genuen hiztegitzaren eta lexikografiaren munduarekin. Semantika eta Lexikologia ikasgaian, hitzen lexemaz, semaz eta morfemez aritu ginen, eta UZEIra¹ egindako bisita batean, artean erabat arrotz zitzaigun *lema* delakoa lehen aldiz entzun genuen.

Filologia ikasketetan, gainontzean, euskal testuak, euskalkiak, fonetika/fonologia eta hizkuntzalaritza ziren ardatz nagusi, eta gutxi aztertzen zen hitz honek edo bestek behar lukeen batuan, edota kontzeptu bat adierazteko euskara bidezko sorkuntza edota mailegua egokiago ote zen, zergatik eta abar; are gutxiago euskararen erabilera berezituaren eremuan kokatzen gaituzten terminologia-auziak. Hain zuzen ere, zeregin horietan murgilduta, hots, euskara batuaren mugen barruan, lehenik, eta alor berezituetakoko euskararen, bestetik, izan dugu hainbat hiztegiaren berri zehatz eta horrekin, jakina, Euskal Herrian erreferentzia den Sarasola hiztegitzaren berri ere. Lehen, gure ikerrarloari lotuta, hizkuntzaren tratamendu automatikoari; bigarrena, gure irakasle-jardunari, alorrez alorreko euskararen didaktikari. Hala, gure

¹ www.uzei.com

lan-jarduera kronologiko osoan bidaide eta erreferentzia-puntu izan dugu Sarasolaren hiztegiren bat, gehienetan ebazgarri eta zenbaitetan eztabaidagarri.

Sarasola formakuntzaz ingeniari izanik ere, euskararen aztertzaile sutsua izan da, berak euskara 'bizia' deritzonaren aldekoa; eta horretan, Mitxelena izan zuen maisu handi. Biak diziplinartekotasunez aritu ziren neurri batean: Sarasolak ingeniariaren metodologiarik eraginkorrena bilatu nahi izan zuen Mitxelenak bilduta zituen zapata-kutxa preziatuetako lan filologiko guztia antolatzeko. Mitxelenaren beraren Katedraren II Biltzarrean² deskribatu zuen filologia 'industrial' egin behar zen; denborak, bestela, ez zuen ematen (zenbat kilometro eta kontsulta egin behar ziren orduko eta eguneko hitz baten inguruko informazio guztia biltzeko!).

Lan egiteko era horrek badu antzekotasunik gurearekin. Guk, filologok, hizkuntzaren tratamendu automatikoaren mundu berrira iritsi ginean, garai hartan teknologia oraindik ere nahiko hastapenetan zegoela baina jada pauso batzuk aurreratuagoa, paperezko hiztegietako hitzak datu-baseratu egin behar genituen, informazio bereizlea zein zen pentsatu eta nolabait antolatu; hori guztia, informatikariekin batera. Hizkuntzalaritza 'konputazionala' zen gurea, eta ordu bakoitzeko landutako hitzak neurtzen genituen (ez kilometroak eginez, baina bai ordenagailuen abiadura kontuan hartuta).

Hitzak, bestalde, ez dira elementu bakartuak; testuinguru jakin batean ageri dira, eta testuinguru hori ere bildu egin behar da, horrek erakusten baitu zehatzen hitz batek duen erabilera eta esanahia. Eta horrela, *corpusgintzara* lerratu gara batzuk eta besteak, erabileraren erakusleihora. Sarasolaren hitzetan,³ erabilera da hizkuntza guztietan hitz bat onartzeko aintzat hartzen den irizpide nagusia, eta hizkuntza bat kultur hizkuntza bihurtzeko, hizkuntza idatziko ondare linguistikoa hartu behar da kontuan, alde kuantitatiboari adina edo gehiago kualitatiboari erreparatuz, alegia, idazle onen usadioari (Sarasola 1989).

Baina hori erraza al da zehaztea duela 30-50 urtez geroztik garatzen hasita dauden askotariko erabilera berrietako euskara aztertzerakoan (hiztun gazteen erabilerak, testuinguru akademikoak...)?

Euskaraz bizi eta euskara lantzen dugun guztion kezka da seguruenik. Hona, gure esperientzia ekarri nahi izan dugu, inolako irtenbiderik proposatu baino gehiago bizipenak partekatzeko asmoarekin, alde aurretiko eskarmentuen berri izatea beti baita aberasgarria hurrengo pausoak hobeto egiteko.

² Ikusi Sarasola (2012).

³ Euskadi Irratia. 2012. «Ibon Sarasola Euskadi Irratian». *Faktoria*. 2012/04/13. [<http://www.eitb.com/eu/audioak/osoak/867061/ibon-sarasola-euskadi-irratian--faktoria/>]

1. Hasiera: Euskararen Datu Base Lexikala (EDBL)

hasiera. iz. (1713) **1.** Hastea; (segida, sail edo hedadura batean) lehenik datorrena edo lehenik ikusten dena, lehen zatia. *Neketsuena hasiera da. Ez dakigula jakitea omen da jakinduriaren hasiera eta iturburua. Hasiera horrek izan ditu ondoreak. Hasieran gaude oraindik.*

*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegiko*⁴ 'hasiera' sarrerako definizioa eta adibide hautatu batzuk.

Hizkuntzalaritza konputazionalari UPV/EHUko IXA ikerketa-taldearen⁵ barruan ekin genion. IXA ikerketa-taldearen zeregin nagusia euskararen tratamendu automatikoa da, nahiz eta beste hizkuntzen inguruko ikerketa eta produktuen garapena ere badituen bere eginkizunen artean. Eginkizun horiek aurrera eramateko, taldea diziplinarteko kideez osatuta dago, informatikariez eta hizkuntzalariez batik bat.

Lan horien artean lehenetariko bat izan da datu-base gisara osatu den hiztegia eraikitzea, hau da, Euskararen Datu Base Lexikala (EDBL) (Agirre et al 1994; Aduriz et al 1998) diseinatzea eta osatzea. EDBL osatze aldera, garai hartan hain arrakastatsua bihurtu zen *Hiztegia 80* (Kintana et al 1980) hiztegi elebiduna hartu genuen abiapuntutzat. Hiztegi horretatik, aurrerago azalduko dugun metodologia eta irizpideak jarraituz, hitz-piloa aukeratu eta datu-base-ratu genituen. Hitzak aukeratzeko garaian eta estandarraren inguruan sortzen zitzaizkigun zalantzak argitzeko, gaur egun *online* kontsulta daitekeen *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* (Sarasola 1984-1996) erabili genuen iturri lexikal gisa, gure kodeketa laburragoan 'Sarasola', alegia. Hiztegi elebakar hori, *Orotariko Euskal Hiztegia* corpusaren irakurketa normatiboa egiteko sortu zena, erreferentzia nagusia zen lexikorako. Bederatzi liburukik osatzen dute eta guztira 30.000 sarrera-hitz inguru ditu. Hiztegiaren bertsio estandar hori oinarri hartuta, gainera, hiztegiaren bertsio elektronikoa sortu genuen ikerketa-taldean (Arriola et al 1996).

Horrelako lan bat egiteak aukera eman zigun hiztegieta murgiltzeko eta 'altxor' horien balioaz jabetzeko, ordura arte ez bezala; izan ere, sarrera aukeratzea eta zalantza genuen kasuetan hitza bera edo hitzaren forma zuzena egiaztatzea izanik ere lehenesten genuen lana, oso aberasgarriak gertatu zitzaizkigun hiztegiek eskaintzen zizkiguten sarrerez eta argibideez gain, hitz horiekin batera agertzen ziren adibideak, definizioak eta esaera zaharrak, geure jakin-mina asetzen zutelako eta nolabait, oharkabea tradizioa eta erabilera uztartzen ere ari ginelako.

Lan hori jolas ere bihurtu zen, hiztegieta aurkitzen genituen bitxikeriak direla eta; esaterako gogoan ditugu *Hiztegia 80*ko (1) eta (2) sarrerak:

⁴ <http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/sarasola/sarasola.apl>

⁵ <http://ixa.si.ehu.es/Ixa>

- (1) sobatzaile: 1 masajista. 2 vide **larruontzaile**
- (2) zierrapoilera: (fam.) cremallera

Bitxitzat jotzen genituen mota horretako hitzek joko handia ematen zizuten informatikariak, zeharka bada ere, hiztegi-kontuetan inplikatzeko, eztabaidagai bihurtzen baitziren hiztegien aberastasuna, euskal hitzen osaera eta esanahia, besteak beste. Esan bezala, hitz horien sarrerak *Hautala-lanerako Euskal Hiztegia*n agertzen ziren egiaztatzen genuen eta bertan ez agertzea bazen irizpidea datu-basean ez onartzeko lehen fase horretan, behintzat.

Gerora, hiztegieta ez zeuden hitzen zerrendak ere heltzen zitzaizkigun eskuetara, artean oso ondo ulertzen ez genuen modu batean lortuak: testuak 'analizatzailetik' pasa eta onartzen ez zituenen zerrendak ziren. 'Pinotxo' izan zen horietako bat. 'Entrenamendurik gabeko' garai haietan, nola erabaki Pinotxok egon behar zuen ala ez datu-basean? Gure hasierako ikuspegitik, zenbat eta hitz gehiago ezagutu, horrekin sortuko zen tresna orduan eta ahaltsuagoa izango zela pentsatzen genuen, gehiegi hausnartu gabe hitz horrek behar lukeen euskaraz (eta ez, adibidez, jatorrizko hizkuntzakoak) edota hiztegi orokor batean sartzeko modukoa ote zen. Hitzen zerrenda horiek 'testu multzo batzuetatik' zetozen, artean oraindik *corpus* gisa definitu gabeak. Horrela, lanean aritu ahala hasi gara jabetzen dauden hiztegi- nahiz testu-motez eta horiek ondo erabiltzeak duen garrantziaz.

Denborarekin euskara tratatzen duten hiztegi eta bestelako baliabideak ugarituz joan dira eta ondorioz, zenbaitetan irizpideak aplikatzeko zailtasunak ere bai. Horrek, jakina, gero eta *metodologia* zehatzagoa eta eraginkorragoa eskatzen du, eta, gaur egun, horretaz gain, euskarri informatikoak eta baliabide konputazionalak erabiltzea eta sortzea; filologia industrial 'sofistikatua' esan genezake, oinarrian kontuan hartu beharreko printzipio metodologiko antzekoak erabiltzen dituen:

- Helburua ondo zehaztu beharra.
- Helburu hori lortzeko denboraren, eskulanaren, azken batean, azpiegituraren azterketa.
- Unitate aztergaia erabakitzea.
- Unitate hori lantzeko ahalik eta informazio gehien zehaztea (iturria, erabilera, maiztasuna...).
- Zalantza-kasuetarako irizpideak markatzea.
- Hori dena jasotzeko baliabide konputazional egokiena aukeratzea eta diseinatzea.

EDBLri dagokionez, geu hasi ginenerako datu-basearen hezurdura finkatuta zegoen; nolabait esan, datu-basean datuak emateko modu egokiena diseinatuta zegoen: egitura orokorra eta sarreraren egitura, besteak beste. Egitura horiek aberasten eta osatzen joan dira denborarekin, informazio berria gehituz. Baina ezin ahortu dugu garai hartan baliabideak

oso urriak zirela eta eskuz 'pikatu' eta osatu genuela datu-basea. Berau osatuko zuten sarrera-hitzak nondik hartu ere erabakita zegoen; hain zuzen ere, *Hiztegia 80* erabili genuen, beharbada garai hartan garrantzi handikotzat jotzen zelako eta eskaintzen zuen hitz kopuruaz gain, hiztegiaren hitzaurrean adierazten den moduan (Kintana et al 1980: 4), era guztietako hitzak («zaharrak eta berriak, baserri- eta marinel-kutsukoak, kalekoak eta unibertsitatekoak, elizakoak zein lizunkeriazkoak, pertsona dotore eta iji-toenak») eskaintzen zituelako eta hiztegia eratzeko lana ere azpimarratzekoa izan zelako. Hiztegiaren hustuketa-lana egin genuen hiztegiko hitzak pikatu ahala erabakiz lemaren forma ondo/gaizki zegoen, zalantzazkoa zen eta landu beharrekoea edo ez. Behin hori erabakita, kategoria gramatikaren arabera (iz., ad. ...) sailkatzen genuen, eta jakina, horretarako kategoria-sistema osatu behar izan genuen taldean, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak* (EGLU) I, II eta III liburukietan (Euskaltzaindia 1991, 1997, 1990) oinarriturik.

Datu-base horretako hitz-kopurua gehitzen joan zen, UZEIren lankidetzarekin osatu zen 25.000 hitzeko corpusean oinarrituta. Corpus hori 25 fitxategiz osatuta zegoen, fitxategi bakoitzaren tamaina 1.000 hitzekoa zen gutxi gorabehera eta eduki desberdineko testu-zatiak jasotzen ziren bakoitzean: kazetaritzako testuak, itzulitako filosofiako testuak, literaturakoak... Corpus horretatik zein hitz datu-baseratu erabakitzean, maiztasunaren irizpidea hartu zen kontuan, besteak beste.

Ordutik hona gauzatu den aberaste-lan horren emaitza da 121.823 hitz-sarrerako EDBL datu-basea (Aldezabal et al 1999; Aldezabal et al 2001) eta 300.000 hitzeko Euskararen Prozesamendurako Erreferentzia Corpora (EPEC) (Aduriz et al 2006), aurrekoez gain *Egunkariako* hainbat testuz ere osatua. EPEC corpora erreferentziazko corpora bilakatu da eta helburua da ahalik eta maila linguistiko gehienetan etiketatzea (Aldezabal et al 2009), euskararen prozesamendurako hainbat tresna eta baliabide automatiko garatzeko eta hobetzeko erabiltzen delako. Eta baita, zeharka bada ere, testuon edukiaz gozatzeko; ederki ikasi dugu zer den «Zuhaitzaren besarkada» (Etxezarreta 1987) testu-zati bera behin eta berri maila linguistiko desberdinetan etiketatzearen ondorioz. Linguistikoki etiketatutako corpora osatzea kostu handiko lana da, eta astuna, denbora eta giza baliabide asko eskatzen duena, baina dudarik ez dago nahitaezkoa dela hizkuntzaren azterketarako eta hizkuntza-teknologiaren garapenerako.

Zalantzarik gabe, diziplinartekotasunak ikasteko aukera paregabea eman digu, eta guztiz aberasgarria izan da informazio linguistikoari forma emateko eta egokiro antolatzeke. Eta horrela dihardugu gaur egun, jada hizkuntza maila aurreratuagoetan.

2. *Euskara batuaren ajeaketik Zehazkira*

‘Egin eta desegin dena da zeregin. Konfuxio’

IXAKO hizkuntzalaritza-mintegietan sortutako leloa eta autorea.

Beste bi baliabide hauek, *Euskara batuaren ajeak* liburuak (Sarasola 1997) eta *Zehazki Hiztegiak* (Sarasola 2005), aukera eman digute zehaztasunaren garrantzia azpimarratzeko bereziki, eta axolagabetasuna alde batera uzteko. Bidea ematen dute hausnarketa egiteko erabiltzen ditugun hitzez eta testuinguruaz. Izan ere, axolagabe jokatu ohi dugu zenbaitetan euskararen kaltetarako, eta horren erantzule egin ditugu gaztelania eta frantsesa. Dudarik ez eragina baduela auzokide izatea hizkuntza horiek, baina onartu beharra dugu erosotasunean erortzea izan dela eta dela askorentzat kalte horren eragileetako bat, askoz ere errazagoa baitzaigu azterketa-lanetan hastea baino beste hizkuntzetan erabiltzen den hori onartzea. Antzeko zerbait sumatuta idatziko zuen Sarasolak *Euskara batuaren ajeak*; hitzaurreko bere hitzek adierazten dute ondoen zerk motibatuta idatzi zuen:

Nire ahalegin nagusia hau izan da: bi euskalki horien batasuna egiteko, dagoen *bide bakarra* erakustea. Bide bakarra 1968ko batasunaren ildotik, gaur egungo bide «errealista, egungo egoera soziolinguistikoa ahazten ez duena»-rekin zer ikusi gutxi duen ildotik hain zuzen. Zeren etsita bainago, batasuna hezurmamitu genuen belaunaldiko jendeak, batasun hura orain egin behar bagenu, *arri* eta *erri* idaztea bultzatuko genukeela: ahaztua dugu Iparralde ezin baztertuzko kontua dugula, are Hegoaldean euskarari beregain iraurazteko (Sarasola 1997: 9).

Kontu hori ez da oraingoa, literatur tradizioan kezka eta eztabaida ugari egon baita Kintanak (2005) dioten moduan kultur eta zientzi mailako hitzak euskaraz emateko.

Batetik, mailegutza lantzean badago Euskaltzaindiak (1986) ezarri zuen arau nagusi bat esaten duena ezin direla maileguan hartu Iparraldeko euskaldunek gaztelania jakin gabe ezin uler ditzaketen gaztelaniazko hitzak, ezta Hegoaldeko euskaldunek frantsesa jakin gabe ulertzen ez dituzten frantseseko hitzak ere, eta horrelakoetan nazioartekotasun ezaugarriari helduko zaiola. Frantsesaren eta gaztelaniaren mendekotasunetik at berezkotasunaren eta naturaltasunaren bila ibili da Sarasola txorroskilo lana eginez zenbaitetan. Honenbestez, argi dago Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen irizpidea beharrezkoa dela edozein hitz hautatzeko garaian.

Bestetik, aintzat hartu beharreko beste hainbat parametro badira; izan ere, liburuaren hitzaurrean dioten modura, bertan egiten dituen proposamen horiek ‘ez dira denak oraintxe bertan eta egoera guztietan aplikatzekoak’ (Sarasola 1997:10). Horren harira, *Zehazki Hiztegian* erdal sarrera-hitzen euskal ordain batzuek erregistro-marka daramate; eta egoera jakin batean erabili

beharreko erregistro-marka horiek lagundu egingo dute euskararen normalizazioan.

Erregistroa (testuinguru bakoitzean dagokiona) dela, beste hizkuntzekiko ukipen-maila (kalko zuzena, okerra den) dela, hitzaren erabilera-maiztasuna dela... hitz bakoitza ia banan-banan aztertu behar da, eta kontuan hartu bere ibilbide osoa tradizioetik hasi (baldin eta badago) eta gaur egunera arte. Horri gehitu behar zaio, gainera, gure ikuspegia ere alda daitekeela (malguago jokatzera, eskuarki), denborarekin egoera soziologikoa alda baitaiteke: giza komunikaziorako ohitura berriak, hitzen erabilera-maiztasuna...

Bilakaera horren adibide dira *Ajeetan* aukera bakarra izan eta *Zehazkin*, berriz, maileguarekin batera ageri diren hainbat sarrera (batez ere gure aztergai diren zientzia eta teknologia alorrei dagozkien erabilerak kontuan hartuta):

- (3) *diseñar, dibujar; diseño*: makina bat marraztu (*Ajeak, Zehazki*), makina bat diseinatu (*Zehazki*); diseinezko aulkiak (*Ajeak*), diseinu-ikasketak (*Zehazki*)
- (4) *pieza*: atal (*Ajeak, Zehazki*), pieza (*Zehazki*)

Baina badira oraindik alboan mailegua ez dutenak; edo izanik ere, behe-mailakotzat hartuak:

- (5) *válvula*: maskor (hamasei maskorreko motorra), balbula (behe) (*Zehazki*)
- (6) *entxufe*: loki (elek.) (*Zehazki*)

Azken hauetan, eta orobat besteetan, alor jakin horretako komunitateak erakutsiko du denboraren poderioz ea erabileran sartu diren eta bide arrakastatsua egin duten. Gure esperientziak erakutsi digu lagunarteko eta eskole-tako ahozko komunikazioan oraindik ere 'balbula' eta 'entxufe' erabiltzen direla. Idatzizkoan, berriz, sakonkiago aztertu behar litzateke, erregistro formal eta zaindu batean bai baitago kontzientzia halako hitzak erabiltzea egokiagoa dela, are gehiago euskararekiko gaztelaniaren bereizle diren fonemak daudenean tartean ('zigueñal'/'birabarki').

Hala ere, honek auzi bat irekitzen digu: erabilera ez dagoenean eta ordeztu mailegaturiko hitz bat erabiltzen denean (gehienetan gaztelaniatikoa edota frantsesa), erabilera 'behartu'/'bultzatu' behar al da? Gure ustez, bai. Halaxe gertatu zen garai batean, nolabait esateko, matematika euskaraz irakasteko proposatu ziren hainbat eta hainbat hitzekin. Kontua da eskoletan euskaraz egiten ere garai hartan hasi zela eta prozesu guztia 'batera' gertatu zela. Honako hauetan, badago aldea: badago hitz mailegatu bat euskaraz ikasita ere erabilera handia duena. Lehenago esan duguna errepikatuz, askotan kasuan kasu aztertu behar da hitz bakoitzaren ibilbidea.

Jakina, terminoetan ere sinonimia zilegi eta aberasgarri denez (Zabala et al 2013) ez dugu zertan bataren edo bestearen arteko hautua egin; bai, ordea, bata eta bestea dagokien erregistroan erabili.

Hala ere, erregistroaren arabera aukera hauetan guztietan, argi izan beharko genuke ez garela parekotasun hau egiten ari: lagunartekoa → ahozkoa, estandar zaindua → idatzizkoa; izan ere, bi kanalek izan behar dute testuinguru desberdinetarako beharrezkoak diren erregistroak.

Orain arte hiztegiar aritu gara. Baina zer gertatzen da hitzez haratagoko fenomenoekin? Esaterako, hitza ez baizik esanahia «mailegatzearen» auziarekin? Badirudi badela joera horrelako mailegu semantikoak, alegia, kalko semantikoak okertzat hartzeko. Horren erakusle dira ‘eman’ aditzaren ‘gertatu, izan’ erabilerak edota ‘mugatu’ aditzaren ‘-tzera mugatu’ erabilera. Are gehiago kalko semantiko horiek elementu sintaktikoen bidez gauzatzen direnean. Hor ditugu, esaterako, morfosintaxiko hainbat adibide, aditzen gauzapeen sintaktikoenak (*bukatu*, *amaitu*, *aurkitu* (*#Gai honekin* bukatzeko / *Gai hau* bukatzeko), *aldatu* (**Bidasoa taldeak atezainez* aldatu beharko du / *Bidasoa taldeak atezaina* aldatu beharko du) (Petrirera 2011: 181, 184), gaitzes-ten direnak, seguruenik euskarazko aditzen berezko egiturak ez izateagatik.

Ez dira eztabaidarik gabeko auziak. Hona hemen, esaterako, 31 *eskutik* webgunean ‘eman’ aditzaren erabilera gaitzetsi honetaz Mujikak (2012) eta Zabalak (2012) esandakoak:

Gaur erabilera-hiztegi bat egin beharko bagenu, zorionez eskura ditugun corpus eta baliabide informatikoei emandako datu-multzo erraldoia aurrean dugula, zer egin behar luke hiztegiak? Zilegitu *eman* aditzaren adiera berria, eta hiztegitatu? Itxaron eta baztertzen jarraitu? Zenbat urtez utzi behar da on- tzen erabileraren upelean kalko bat mahaira beldurrik gabe atera baino lehen?

Mujika (2012)

«Gipuzkoan hiru etxe-kaleratze ematen dira egunero»,
31 *eskutik*.

Ikuspegi funtzionaletik, Alfontso Mujikak azaroaren 19an aipatzen zuen *eman* aditzaren erabilera, erabat aintzat hartzekoa da nire iritziz, testuinguru jakin batean semantikoki zehatzagoa izan litekeen aditza hautatzeko ahalegina saihestea posible egiten digun «komodin» modura uler baitaiteke. Erregistroaren formaltasunak hala eskatzen digunean edota, besterik gabe zehatzak izan nahi dugunean, adierazi nahi dugunerako egokiena den aditza bilatzen saiatuko gara: halako landareak halako inguruneetan **hazten** dira; lurrikarak beste halakoetan **gertátzen** dira; halako gaixotasuna halako ezaugarriak dituzten pertsonengan **azaltzen** da... Formaltasunaren edota zehatzasunaren presiorik ez dugunean, aldiz, lasai asko erabiliko dugu testuinguru horietan guztietan *eman* aditza. Komodin modura erabili ohi dira beste aditz batzuk ere, adibidez, *sortu*, *kontsideratu* eta *suposatu*.

Zabala (2012)

«Aditzak eta erregistroak»,
31 *eskutik*.

Horrelakoek erakusten dute ez dagoela argi noiz erabilera berri hauek (gehienetan mailegatuek) laguntzen duten hizkuntza bat aberasten eta noiz zabartzen berezko erabilera bat baztertu arteraino.

Eta hori da neurri batean geure ikasgaietan adierazten duguna.

Hain zuzen ere, GARATERM deritzogun egitasmoaren (Zabala et al 2008) helburu orokorra da alorrez alorreko erregistro berezituen garapenean eta finkapenean laguntzeko beharrezkoak diren baliabideak diseinatzea, uni-bertsitateko erregistro berezituen ikerketa eta didaktika uztartuta. Beste hitzetan esanda, erabilera errealearen erakusleho izango den baliabidea osatzea du helburu.

3. Teknologia eta Zientzia euskaraz

Garapen funtzionalak zenbaitetan baliabide berrien sorrera dakar eta, beste batzuetan aldiz, hizkuntzak dituen baliabideen berrantolaketa. Garapen funtzional horri esker hizkuntza aberastu egiten da eta «gauza diferenteak» adierazteko egokitzen.

Zabala (2012)
«Aditzak eta erregistroak»,
31 eskutik.

Gure irakaskuntza-eremuari hertsikiago, jakina da *-tzaile* atzizkiak alor teknikoetan hartu duen eremu zabalagoa izaki bizigabeak ere adierazteko (kutsatzaille, oxidatzaille, erradiatzaille...). Azken batean, gizakien egiletasunaren ezaugarri hori materialei eta izaki naturalei aitortzen zaie honela.

Ildo beretik egokitu zaigu oraindaino gizakien gaitasunari erreferentzia egiteko bakarrik erabili izan diren ekintza batzuk adierazi behar izatea, materialen kasuan esaterako. ‘Ceder’ eta ‘flexionar’ modukoez ari gara zehazki. Gure kontsultagai ohikoenak diren *Hiztegia 5000*, *Euskalterm* eta *Elhuyar Hiztegia* jota, ‘prakek eman egiten dute’ modukoak topatu ditugu. Ordea, *Zehazkirekin* beste leho bat ireki zaigu, eta bertan ‘eman’ soilaz gain ‘amore eman’ ere ikus dezakegu. Hasiera batean gogor eta arrotz samar egiten bada ere, *Zientzia eta Teknologiaren Corpusak* hainbat adibideren bitartez agerian jartzen digu izatez horrela erabilia izan dela hainbat testu teknikotan. ‘Flexionar’ en kasuan, berriz, inongo hiztegitan ez da zehazki ageri izaki ez-bizidunekin, baina ‘makurdura’ dugun bezala ‘flexión’ adierazteko, zergatik ez baliatu ‘makurtu’ zutabe bat makurtu dela esateko? Berriz ere *Zientzia eta Teknologiaren Corpusera*⁶ jota, horrelaxe erabili izan dela egiazta dezakegu.

Alegia, *Zehazki* hiztegia orain arte zientzia eta teknologian erreferentzia izan diren beste hiztegiekin batera aztertu beharreko oinarria dugu, batean

⁶ www.ztcorpusa.net

eta bestean ez dauden ñabardurak eta bideak erakusten dizkigulako batzuetan. Olatuak sakonera txikiko ertzetara iristen direnean duten mugimendua (*vaivén* modura adierazia gaztelaniaz) adierazteko ere, esaterako, 'joan-etorri'z gain 'hara-honako' (mugimendu) ere ageri da; gure ustez egokiagoa joan den mugimendua adierazteko. Izan ere, olatua ez da 'leku batetik abiatu eta leku berberera itzultzen, joan eta etortzen alegia, baizik eta hasierako puntua baino aurreragoko puntu batera itzultzen da, eta bitarte horretan gora eta behera ere egiten du. Ondorioz 'joan-etorri'aren esanahi hertsia baino zehazgabeagoa iruditzen zaigu olatuen 'hara-honako' mugimendua.

4. 'Iturria'

Kontzeptuak ez dira aldaezinak; alderantziz, garatzen doaz gizakia garatzen doan neurrian. Eta horrekin berarekin doan hitza edo terminoa, jakina. Garai batean 'iturriak' mendian bakarrik zeuden: lur azpiko edo gaineko ura nolabait kanalizatu eta edateko, forma jakineko bukaera bat jartzen zitzaion, eta hori zen iturria.

Denborak aurrera egin ahala, ura etxeetara eraman eta etengabe korritzen ez egoteko, eteteko sistema bat behar zen. Sistema hori jarri ostekoa jada ez zen *iturria*, baizik eta *kanila*, *dutxulua*, *txorrota*. Baina gaur egun, botilako uretik bereizteko edo sistema hori ixteko 'iturriko ura' eta 'itxi iturria' esaten dugu, nolabait ere, emariari berari garrantzia emanez, eta ez ixteko sistemari. Hala, gaur egungo aurrerakuntza guztiekin kanilla/txorrota/dutxulu mota ugari bereizteko beharra dugu, eta hor ez dirudi zehatza *iturri* erabiltzea. Baina esanahia jatoria hurbiltzen hasten den neurrian 'iturria'ren beharra sumatzen dugu.

Espero dezagun Sarasola kanilarik gabeko iturria izaten jarraitzea.

Aipamenak

- Aduriz, Itziar, Izaskun Aldezabal, Olatz Ansa, Xabier Artola & Arantza Díaz de Ilarraza. 1998. «EDBL: a Multi-Purposed Lexical Support for the Treatment of Basque». *Proceedings of the First International Conference on Language Resources and Evaluation, Vol II*. Granada. 821-826.
- Aduriz, Itziar, M.^a Jesús Aranzabe, Jose M.^a Arriola, Aitziber Atutxa, Arantza Díaz de Ilarraza, Nerea Ezeiza, Koldo Gojenola, Maite Oronoz, Aitor Soroa & Ruben Urizar. 2006. «Methodology and steps towards the construction of EPEC, a corpus of written Basque tagged at morphological and syntactic levels for the automatic processing». In A. Wilson, P. Rayson & D. Archer (arg.), *Corpus Linguistics Around the World*. Book series: Language and Computers. vol 56. Herbehereak: Rodopi. 1-15.
- Agirre, Eneko, Xabier Arregi, Jose M.^a Arriola & Xabier Artola. 1994. *EDBL: Euskararen Datu Base Lexikala*. Barne-txostena. UPV/EHU-LSI TR 8-94.

- Aldezabal, Izaskun, Olatz Ansa, Xabier Artola, Aitzol Ezeiza, Koldo Gojenola & Mikel Lersundi. 1999. *Euskararen Datu-Base Lexikala (EDBL): eskema berriaren proposamena*. Barne-txostena. UPV/EHU/LSI/TR9-99.
- Aldezabal, Izaskun, Olatz Ansa, Bertol Arrieta, Xabier Artola, Aitzol Ezeiza, Gregorio Hernández & Mikel Lersundi. 2001. «EDBL: a General Lexical Basis for the Automatic Processing of Basque». *Proceedings of the IRCS Workshop on Linguistic Databases*. Philadelphia (USA). 1-10.
- Aldezabal, Izaskun, M.^a Jesús Aranzabe, Arantza Díaz de Ilarraza, Ainara Estarona, Nerea Ezeiza & Larraitx Uría. 2009. «Corpusen etiketatze linguistikoa». In R. Etxepare, R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *A Festschrift for Bernard Oyharçabal. «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren Urtekariaren ale berezia*, XLIII:1-2(2009). Leioa: UPV/EHU. 37-50.
- Arriola, Jose M.^a, Xabier Artola & Aitor Soroa. 1996. «Hauta-Lanerako Euskal Hiztegiaren analisi erdiautomatikoa». *«Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren Urtekariaren ale berezia*, XXX-2, Bilbao: UPV/EHU. 621-629.
- Etxezarreta, Ramon. 1987. *Kamasutra*. Donostia: Elkar.
- Euskaltzaindia. 1986. *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1991, 1997, 1990. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak* (EGLU) I, II, III. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Kintana, Xabier, Jon Aurre, Rikardo Badiola, Sabin Egileor, Juan Luis Goikoetxea, Juanjo Zearreta, Koldo Zuazo & Ekiten taldeko irakasleak. 1980. *Hiztegia 80, euskara-espainiera, espainiera-euskara; vasco-español, español-vasco*. Bilbo: Ekiten Taldea.
- Kintana, Xabier. 2005. «Lexiko zientifikoaren arazoa euskara idatziaren historian zehar». In J.M.^a Txurruka & E. Barrutia (arg.), *Euskera Zientifiko-Tekniko: Normalizaziotik Homologaziora*, Bilbao: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea. 479-506.
- Mujika, Alfontso. 2012. «Gipuzkoan hiru etxe-kaleratze ematen dira egunero», *31 eskutik* (2012/11/19). [<http://31eskutik.com/2012/11/19/gipuzkoan-hiru-etxe-kaleratze-ematen-dira-egunero/>]
- Petirena, Patxi. 2011. *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Sarasola, Ibon. 1984, 1986, 1988, 1990, 1991, 1992, 1993, 1994, 1996. *Hauta-lanerako euskalhiztegia* 9 liburuki. (Lib. I *a-aurten*, 142 p.; II *aurtiki-ebaki* 144 p.; III *ebaki-gabizain*, 112 p.; IV *gabon-hegazterren*, 118 p.; V *hegazti-jabe*, 133 p.; VI *jabedun-loratze*, 135 p.; VII *lorbide-orbain*, 151 p.; VIII *orbaindu-tolesdun*, 145 p.; IX *tolesgabe-zuztatu* 144 p.). Kutxa Fundazioa/Fundación Kutxa.
- Sarasola, Ibon. 1989. «Euskal hitzez». *Ibon Sarasolaren Euskaltzaindian sartzea*. Donostia, 1989-I-27.
- Sarasola, Ibon. 1997. *Euskara batuaren ajeak*. Irun: Alberdania.
- Sarasola, Ibon. 2005. *Zehazki. Gaztelania-euskara hiztegia. Diccionario castellano-euskera*. Irun: Alberdania.
- Sarasola, Ibon. 2012. «Orotariko Euskal Hiztegia eta euskal hiztegitantza». *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*. Vitoria-Gasteiz, 2012/X/8-11. [<https://www.youtube.com/watch?v=zx5GjrlOufY&noredirect=1>]
- Zabala, Igone, Axun Aierbe, Izaskun Aldezabal, M.^a Jesús Aranzabe, Xabier Arregi, Jose M.^a Arriola, Agurtzane Elordui, Antton Elozegi, Kristina Elozegi, Joseba

- Ezeiza, Julio Garcia, Ines Garcia, Mikel Lersundi, Itziar San Martin & Iñaki Ugarteburu. 2008. «GARATERM: Diskurtso akademiko-profesionalaren didaktika eta garapena uztartzeko tresna informatikoen diseinu eta integrazioa helburu duen proiektua». In P. Salaburu & I. Ugarteburu (arg.), *Espezialitate Hizkerak eta Terminologia jardunaldiak*. Leioa: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua. 211-219.
- Zabala, Igone. 2012. «Aditzak eta erregistroak», *31 eskutik* (2012/12/01). [<http://31eskutik.com/2012/12/01/aditzak-eta-erregistroak/>]
- Zabala, Igone, Mikel Lersundi, Igor Leturia, Iker Manterola & Gotzon Santander. 2013. «GARATERM: euskararen erregistro akademikoen garapenaren ikerketarako lan-ingurunea» In X. Alberdi & P. Salaburu (arg.), *Ugarteburu terminologia jardunaldiak (V). Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*. Bilbo: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua. 98-114.